



gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

PROGRAMA
EUSKARA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2022



gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

ARTISTA AZ-KIDEAK

Ion Munduate, Elena Aitzkoa eta Miguel A. García, Azkuna Zentroko artista Az-Kideak 2022tik

Ion Munduate (Donostia, 1969) diziplina anitzeko artista, [Elena Aitzkoa](#) (Apodaka, 1984) artista, poeta eta performerra eta [Miguel A. García](#), aka [Xedh](#), soinu-artistak dira, 2022tik aurrera, [Azkuna Zentroko Artista Az-Kideak](#). Sorkuntza bultzatzeko programa honek laguntza eman nahi die beren lanen bidez lengoia garaikideei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei.

Elena Aitzkoak [Ur Aitzak](#) aurkeztuko du, artistaren motibazio pertsonal batetik abiatzen den sorkuntza proiektua. Zentroaren desirari eta aukerari erantzuten dio, «herritarrekin bat egiteko eta, nolabait, haren eraldaketa sentikorren parte aktibo izateko», artistak azaldu duenez. [Ur Aitzak](#) zortzi eskulturak osatzen dute, eta pixkanaka sortzen joango dira, beti ahots- eta poesia-lan bati lotuta. Lehen etapa honetan, Elena Aitzkoarekin batera, proiektua ulertzen, bultzatzen eta hari eusten lagunduko duten hainbat konplize egongo dira.

Ion Munduatek, Blanca Calvorekin batera, proiektu bat jarriko du abian. Hiru ardatzez osatuta dago, lotura bidezko engranaje baten pieza modura funtzionatzen dutenak: maitasuna ekoizpen gisa, haizeen arrosa eta konstelazio esekia. «Proiektuaren oinarria dira mugimendua, harmonia eta maitasuna

ekoizpen gisa, elementuak, ideiak eta kontakizunak mugiarazten dituen faktore modura ulertuta. Engranaje horren gainean, haizeen arrosa dago, eta haren gainean nabigatu eta gidatuko gara», aurreratu du artistak. Proiektua bi urtez garatuko da, eta «erakusten ditu nire lanaren ildoak osatzen dituzten elementuen kezkak, desirak eta gai nagusiak eta horien arteko tarteko espazioa. Gainjarrita, esekitako konstelazioa, zero bat, urteetan zehar nigan eragina izan duten eta nire erreferenteak izan diren artistekin izandako topaketa eta ikusgarritasun-uneena», gehitu du.

Miguel A. García aka [Xedh](#)-ek, Azkuna Zentroko Artista Az-Kidea den aldetik, jarraipena emango dio soinu-arloan egiten duen lan-ildoari, eta pieza eszeniko-musikalak egingo ditu. Pieza horiek tailer-formatuan sortuko dira, eta oinarri desberdinetako bertako artistak sartuko dituzte tartean. Miguel A. García azaldu duenez, «soinua da bitartekoa, eta niretzat jatorria da, baina ez amaiera: bitarteko horretatik abiatzen diren musikari eta artistekin lan egitearekin batera, nahi nuke beste diziplina batzuetara zabaldu, baina beti modu organikoan».

KOLEKTIBO EGOILIARREN PROGRAMA

Urbanbat. Behatokia

[Urbanbat](#), hiri-berronertzeko prozesuetarako ikerketa- eta bitartekaritza-bulegoa, da Azkuna Zentroko kolektibo egoiliar berria. Bi urtean zehar, programa garatuko du, hiri-ikerketarako laborategi esperimental, ireki eta parte-hartzailea.

Hiritarren “Situation Room” moduko bat, hiria ikuspegi transdiziplinar batez behatzeko, krisialdi ekosozialeko egoera honetan, kultura- eta arte-praktikak, arkitektura eta hirigintza, gizarte-zientziak eta kokatutako esperientziak gurutzatuz.